

SARRERA ETA OHAR METODOLOGIKOAK

Informazioaren oinarritzko euskarri gisa eta udalerriko eta/edo eskualdeko ezinbesteko markoa eskura izateko helburuarekin, informazio-fitxa xehekatuak (koadroak) egin ditugu EAEko udalerrietako bakoitzerako eta, hedaduraz, horiek osatzen dituzten eskualde-egituretarako, lurralde historikoetarako eta EAerako.

Informazio horrek duen bolumena ikusita eta agiriaren azalpen orokorrean trabarik ez egiteko, nahiago izan dugu horien laburpen bat aurkeztu, eranskin modura, eskualde-egituren arabera antolatuta.

Ondoren eskualde-egitura bakoitzerako aurkeztuko ditugun koadroek ondorengo alderdiak aztertzen dituzte:

- Biztanleriaren eta etxebizitzaren bilakaera 1986-1996 aldian, bost urtetik bost urtera
- Etxebizitzen parkearen okupazio-maila 1996an
- Sortutako etxebizitzen parkea, 1986-1999
- 1986-1999 aldian sortutako eraikitako etxebizitza babestuak, moten arabera, eta guztira eraikitako etxebizitzen arabera ehunekoa.

Horien osagarri den informazioa, hurrengo zortzi edo hamar urteetarako hirigintza-plangintzak aurreikusitako etorkizuneko eszenatokiari dagokiona, eskualde-egitura bakoitzaren balorazio eta diagnostiko xehekatuan ageri da. Lurralde historikoei eta EAeri dagokiona, berriz, informazio orokorra osatzen duten ataletan.

OHAR METODOLOGIKOAK

- Lehenengo koadroko biztanleriaren eta etxebizitzaren bilakaerari buruzko datuak 1996ko EUSTATEko behin-behineko emaitzak dira.
- 1996ko biztanleria eta etxebizitza erroldaren (EUSTAT) eta ondorengo errolden artean aldaketa terminologiko batzuk daude. Hori gainditzeko, **parkearen okupazio-mailari** buruzko koadroan etxebizitza okupatuen kontzeptua etxebizitza nagusienarekin asimilatu da. Etxebizitza hutsen artean bildu ditugu desokupatuta dauden etxebizitzak nahiz bigarren etxebizitzatzat jo genitzakeenak.
- **86-99ko hazkundeari** dagozkion taulak oro har edo zifra-ordenaren arabera hartu beharko ditugu kontuan, izan ere, bertan bi estatistika-serie desberdin nahastu dira: batetik EUSTATEtik eratorritakoak (1986ko datuak) eta bestetik EAEko bizitegi-eremuen azterlan edo inbentariotik eratorritakoak (1999).

Azkeneko inbentario horretan eraikitzat jotzen dira 2000ko urtarrilean eraikitzeko baimena zutenak eta, beraz, 2001ean amaitutzat joko direnak. Horrela bada, mugak muga, 86-99 aldia 86-2001 aldiarekin asimila daiteke.

- **86-89 aldian eraikitako etxebizitza babestuei** buruzko koadroan etxebizitza babestuak eraikitzearen aldeko ekintza positiboa izan duten udalerrak bakarrik agertzen dira.

Eraikitako etxebizitzaren kopurua bat dator lan hau egin bitartean prestatutako EAEko bizitegi-eremuen inbentarioko datuekin. Babestutako etxebizitzari dagozkienak, aldiz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak emandakoak dira. Horien artean bada bat ez etortzeren bat, udalerrak batzuetan kontatzeko erabilitako sistema desberdinaren ondorioz. Hori dela eta, oraingoan ere aplikagarri izango da aurreko puntuan adierazi berri duguna.